



## tripontzi basajauna

Udako beroaldi larri baten  
Gorbeia-ko Mairulegorreta lezako basajauna  
izerdia eriola egoan.

— *Goiko tontorrera joango nintzatekek* —inoan—  
*honelako bero aldietan aitak eroaten ninduan tokira,*  
*baina orain, kristinauak gurutzea ipini daben ezkeru, ežin!*

Ez, bada! Ezin jasan\*gurutzea basajaunak...

— *Ondartzara joango nök. Eta uretan sartuko nök!* —esan eban.

Esan eta egin: eguna ilundu zaneko han joian  
abiada baten\*itsas-ertzera. Eta hankandia zan ezkeru  
behingo baten\*heldu zan. Heldu ta **ZAST!** Uretara!  
Hantxe kendu jakozan izerdi ta bero larriak.  
Gero, uretatik urtenda, ondartzan jarri zan luze-luze...

— *Hau, atsedena\*!* —inoan— *Hau, atsegina\*ta zerua!*  
*Kristinauen zerua baizen\*ederra!*

Ta hori esanaz batera loak hartu eban.  
Biharamona\*jai eguna zan: Andra Mari Eguna.  
Eguna urratzean\*...

— **DIN-DAN! DIN-DAN! DINGILI...!**

Andra Mari eleizako kanpai hotsa.

— *Ene, bada! Egun sentia\*dök* —esan eban— *Galdua nök.*

Zutuntzen hasi baina jesarri egin behar,  
indarge\*eta zirkin egin\*ezinik...

aurrean eukan eleizako gurutzea ikusi ebalako.

— *Hau, lorra!\*—inoan— Honelan egon beharko ete jöät orain*  
*eta egun guztian, ilundu arte?*

Jendea etorten hasi zan eta umeak hurreratzean

— *Gargantua! Gargantua!* —esaten hasi ziran, pozik eta zarataka,  
Bilboko Tripontzi zalakoan.

— *Ez, ez dök Tripontzi!* —esaten eben beste batzuk—

*Bilbokoaren aldean itsusia\*dök hau!*

*Bilbokoa, makurtuta egoten dök; hau, ostera, jesarrita jagok.*

*Harek umeak iruntsi egiten jözak eta gero atzeko zeretik hustu\*;*  
*honek, ostera, ezin holakorik egin...*

*jesarrita dagonak atzeko zer hori ondo gordeta jaukak-eta!*

Bitartean, basajauna zurtuta\*egoan,

— *Non ete naiagok ni?* —inoan bere kolkorako—

*Atzo, bero larriak eraginda,*

*zankada luzeegiak emon nebazala irudik...*

*eta urrunegi etorri; Hau ez dök Euskalerrria! Euskalerrrian*

*euskeraz egiten dök! Honeek ez jöek euskeraz egiten!*

Eta honelako pentsamentuetan ziharduala...

umeak kokoteraino igon eutsen. Batzuk, paparretik gora...

Beste batzuk, bizarretan dingilizka... Sudur gainean...

Ume zorritzot batek, barriz, belarrian sarturik

kili-kili egiten eutsan...

Eta Tripontzi-k dana jasan behar!

Jasan? Gero ikusi behar... eguerdi eguerdian...

goiko arrautza gorringoa aurrez aurre jarri jakonean...

Basajaun gizajoa! Haxe izeditan!

*Ez jöät aurreratzean neure leza zulotik urtengo bada!* —inoan,

Bai, ondo damutu jakon. Eta iluntzean, ondo berotuta,

ondo beratuta, ondo baretuta... bere alderdira abiatu zan.

\* jasan = soportar  
\* abiada baten = velozmente  
\* behingo baten = en un santiámén

\* atsedena = descanso  
\* atsegina = placer, gozo  
\* ...baizen... = tan... como...

\* biharamona = hurrengo eguna  
\* eguna urratzean = al rayar el alba  
\* egun sentia = amanecer

\* indarge = indar bage  
\* zirkin egin = ikara egin, mobidu

\* hau, lorra! = ¡vaya contratiempo!  
\* itsusia = motza, zatarra

\* hustu = hutsitu  
\* zurtuta = desconcertado, atónito